

Bisitatuko al dugu osaba Dionixio?

Hemendik aurrera ospitale batzuetan ez digute esango pazienteak zein gelatan dauden eta ez dugu aukerarik izango gaixoaren gelara telefonoz deitzeko. Bideo batetik abiatuta, gai horretaz arituko gara jarduera honetan.

Ariketa hauek proposatzen dizkizugu:

- Pazienteak ospitaletan bisitatzeari buruzko iritzia adierazi.
- Gaiaren inguruko anekdotak entzun eta ulertu.
- Gaiaren inguruko anekdota bat idatzi eta kontatu.
- Bideoa ikusi eta galderei erantzun, ondo ulertu duzun jakiteko.
- *Paziente* eta *gaixo* hitzen inguruko hausnarketa egin.
- Bideoko bi pasarte euskaratu.
- Gaiaren inguruko lexikoan arreta jarri, molde bakoitza aditz egokiarekin lotuz.
- Osakidetzako arduradunei eskutitza idatzi, zure iritzia emanez eta pasadizoren bat erantsiz.



Zein da bere gela-zenbakia?

Zein da zure iritzia gai honen inguruan? Komentatu zure ikaskide batekin zein iritzirekin zatozen



Idea berriren bat sortu bada taldean, idatziz jaso.

- Ondo dago nahi dugunean bisitatzeko modua izatea, askotan bat-batean erabakitzen baita ospitalera joatea.
- Ez dago ondo abisatu gabe gaixoak bisitatzera joatea.
- Bazen garaia! Aspaldi hartu behar zuten bisitak mugatzeko erabakia.
- Eta modurik ez badaukagu familiarekin harremanetan jartzeko? Ezin dugu gaixoa bisitatu? Praktikoak zen ospitalean bertan gelako zenbakia ematea.

Nolako bisitak?

Segidan, ospitaleko bisiten gaiarekin zerikusia duten lau kontakizun entzungo dituzu. Irakurri segidan dituzun baieztapenak. Ondoren, entzun testigantzak eta entzun bitartean, esan EGIA ala GEZURRA diren.



<https://labur.eus/4wsva>

Haur jaioberriaren aitak dioenez, bisitei ospitaletik joateko eskatu behar izan zieten, pertsona gehiegi elkartu ziren-eta.

- Egia Gezurra

Josu haurraren aitaren arabera, askoz ere jende gehiago joaten da ospitaletara bisitan astelehen buruzuri batean.

- Egia Gezurra

Senar-emazteak beti joaten dira elkarrekin bisitan, baina aurrez abisatuta.

- Egia Gezurra

Bikote hau ziztu bizian joaten da ospitalera ezagunen bat bertan dagoela jakinez gero.

- Egia Gezurra

Sudurreko ebakuntza izan zuen pertsonak kontaktzen duenez, eskertzekoa izan zen ondoko pazientearen senideak alboan izatea.

- Egia Gezurra

Sudurreko ebakuntza izan zuen pertsonaren arabera, ezinezkoa da ospitalean deskantsatzea jende asko badago gelan.

- Egia Gezurra

Ospitalera joatea gustuko ez duen pertsona honek bisitaldi laburrak egiten ditu beti pazientea izan den pertsonaren etxera joanda.

- Egia Gezurra

Ospitaleko egonaldia eta gero bisitan joaten den pertsona honen iritziz, bisita luzeak ez dira egokiak eta bisitaria lekuz kanpo dago.

- Egia Gezurra


Ikaskide batekin konparatu zure erantzunak eta desberdin erantzun dituzuenak komentatu, zuen aukera defendatuz.

Adibidez:

- *Nire ustez, lehena egia da. Hori esan duela iruditu zait.*
- *Bada, nik uste dut lehena gezurra dela. Ez du esan eskertzekoa izan zenik, esan du ezin izan zuela atsedean hartu.*


Bisitan izeba Margari etorri zenean...

Eta zuk, nolako esperientzia izan duzu zuk gaixo nahiz bisitari izanda? Idatzi hemen, labur-labur, entzungaietako testigantzen antzeko kontakizuna, gero ikaskideei kontatzeko. Ahal dela, saia zaitetz kontakizunari gatza eta piperra botatzen. Ez du zertan benetako istorioa izan, erabili zure irudimena!



Pazienteen gela-zenbakirik ez

Orain etb 1eko bideoa ikusi eta galderei erantzun:



Zein da bideoan ematen den berria?

- Zenbait osasun-zentrotan ez dela pazienteen geletara telefono-deirik pasako edota dauden gela-zenbakien berri emango.
- Osakidetzako ospitale guztietan ez dela pazienteen gela-zenbakien gaineko informaziorik ematen.
- Donostiako Ospitalean kartelak eskegi dituztela, gaixoak ahalik eta gutxien gogaitzeko eskatuz.

Nork erabakiko du zein bisita jaso?

- Pazienteak berak.
- Pazientearen familiak.
- Ospitaleak.

Ospitalera telefonoz deituz gero...

- Berehala pasako dute zure deia adierazten duzun pazientearen gelara.
- Alferrikako lana hartuko dugu, ez baitute deirik pasako hemendik aurrera.
- Pazientearen gela-zenbakia eman beharko dugu deia pasatzea nahi badugu.

Bideoan elkarrizketatutako pertsonen ustez...

- Bideoan aipatzen den neurria ez da nahikoa pazientearen intimitatea babesteko.
- Erabaki eztabaidagarria da pazientearen esku egotea nor joan daitekeen bisitan.
- Konturik garrantzitsuena da pazientearen lasaitasuna eta intimitatea zaintzea.

Non ezarri da neurria?

- Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ospitale gehienetan.
- Momentuz, Osakidetzako hiru ospitaletan.
- Euskal Herriko ospitale guztietan.



Euskaraz eman

Konturatuko zinenez, bideoan hitz egin duen ospitaleko arduradunak gaztelaniaz eman ditu azalpenak. Euskara itzazu pasarteok, zure hitzak erabiliz. Bukatzen duzunean, nahi baduzu, gure proposamenak irakurri ahal izango dituzu:



Claro, el paciente tiene derecho a decidir qué visitas quiere recibir y entonces, nosotros respetamos ese derecho que tiene el paciente y bueno, pues, ha ido evolucionando. Puede tener la visita indeseada de algún familiar o de algún vecino y no tiene por qué recibirla.

Siempre y cuando sea en presencia. Por teléfono no damos ningún tipo de información, pero en presencia si el paciente lo autoriza damos la información del número de habitación en la que está. Es el único tipo de información que daríamos.



Paziente guztiak gaixorik daude?

Bideoan gaixo eta paziente hitzak erabiltzen dira. Gauza bera adierazten dute bi hitzek? Nor da gaixoa eta nor pazientea segidan dituzun hauen artean? Ala biak?

- Haurdun dagoen emakumea
- Odol-analisiak egitera doan pertsona
- Ebakuntza egin behar dioten pertsona
- Urteroko osasun-azterketa pasa behar duen langilea

Eztabaidatu bikoteka eta komentatu gero talde handian.



Lexikoa

Segidan dituzu jardueretan azaldu diren egitura batzuk. Saia zaitetz kasu bakoitzean aditz egokia aukeratzeko.

Pazientea ahalik eta gutxien

- gogaitu/molestatu
- partekatu
- babestu

Aurrez _____-tako ordua izan

- egon
- ezarri
- adostu

Bisita

- eman
- babestu
- luzatu

Deia

- gogaitu
- ezarri
- pasa

Ebakuntza

- ezarri
- egin
- eman

Enbarazu

- izan
- egin
- egon

Eztabaidagarria

- hitzartu
- izan
- egon

Gela

- babestu
- luzatu
- partekatu

Lekuz kanpo

- egin
- eman
- egon

Minez _____ eguna

- egin
- eman
- partekatu

Nahiago

- eman
- izan
- egon

Neurria

- ezarri
- egin
- eman

Pazientearen esku

- luzatu
- egon
- babestu

Pazientearen intimitatea

- babestu
- eman
- ezarri

Osakidetzari eskutitza

Egoera:

Osakidetzak erabaki du ez diola inori zabalduko zein diren pazienteek ospitaletan okupatzen dituzten gela zenbakiak, ez harreran ezta telefonoz ere. Neurria ospitaleratutako pertsonen intimitatea babesteko da.

Eginkizuna:

Idatzi gutun labur bat Osakidetzako arduradunei. Bertan, adierazi zein iritzi duzun hartutako erabakiaren gainean eta nahi baduzu, bizi izan duzun esperientzia edo anekdotaren bat kontatu.



Nolako bisitak?

Haur jaioberriaren aitak dioenez, bisitei ospitaletik joateko eskatu behar izan zieten, pertsona gehiegi elkartu ziren-eta.

- Egia Gezurra

Josu haurraren aitaren arabera, askoz ere jende gehiago joaten da ospitaletara bisitan astelehen buruzuri batean.

- Egia Gezurra

Senar-emazteak beti joaten dira elkarrekin bisitan, baina aurrez abisatuta.

- Egia Gezurra

Bikote hau ziztu bizian joaten da ospitalera ezagunen bat bertan dagoela jakinez gero.

- Egia Gezurra

Sudurreko ebakuntza izan zuen pertsonak kontatzen duenez, eskertzekoa izan zen ondoko pazientearen senideak alboan izatea.

- Egia Gezurra

Sudurreko ebakuntza izan zuen pertsonaren arabera, ezinezkoa da ospitalean deskantsatzea jende asko badago gelan.

- Egia Gezurra

Ospitalera joatea gustuko ez duen pertsona honek bisitaldi laburrak egiten ditu beti pazienteak izan den pertsonaren etxera joanda.

- Egia Gezurra

Ospitaleko egonaldia eta gero bisitan joaten den pertsona honen iritziz, bisita luzeak ez dira egokiak eta bisitaria lekuz kanpo dago.

- Egia Gezurra

Pazienteen gela-zenbakirik ez

Zein da bideoan ematen den berria?

- Zenbait osasun-zentrotan ez dela pazienteen geletara telefono-deirik pasako edota dauden gela-zenbakien berri emango.

Nork erabakiko du zein bisita jaso?

- Pazienteak berak.

Ospitalera telefonoz deituz gero...

- Pazientearen gela-zenbakia eman beharko dugu deia pasatzea nahi badugu.

Bideoan elkarrizketatutako pertsonen ustez...

- Konturik garrantzitsuen da pazientearen lasaitasuna eta intimitatea zaintzea.

Non ezarri da neurria?

- Momentuz, Osakidetzako hiru ospitaletan.

Euskaraz eman

(Jakina, pazienteak eskubidea du zein bisita jaso nahi duen erabakitzeko eta orduan guk pazienteak duen eskubide hori errespetatzen dugu eta bueno bada, eboluzionatu du/aldatu egin da. Nahi ez duen senide edo bizilagun baten bisita jaso dezake eta ez du zertan jaso. Baldin eta aurrez aurre baldin bada. Telefonoz ez dugu inolako informaziorik ematen, baina aurrez aurre pazienteak baimena ematen badu, bera dagoen gelako zenbakiaren gaineko informazioa ematen dugu. Hori litzateke emango genukeen informazio bakarra.)

Lexikoa

Paziente ahalik eta gutxien

- gogaitu/molestatu

Aurrez _____-tako ordua izan

- adostu

Bisita

- luzatu

Deia

- pasa

Ebakuntza

- egin

Enbarazu

- egin

Eztabaidagarria

- izan

Gela

- partekatu

Lekuz kanpo

- egon

Minez _____ eguna

- eman

Nahiago

- izan

Neurria

- ezarri

Pazientearen esku

- egon

Pazientearen intimitatea

- babestu

Transkripzioak

Nolako bisitak?

00:22 Gure mutikoa larunbatean jaio zen. Badakizu, larunbata izanik, jende piloa etorri zen, bai larunbatean bai igandean, eta gogorra izan zen lagunei eta senideei alde egiteko esatea. Seguru abuztuan jaio izan balitz ez zela horrelakorik gertatuko...

00:30 Bada, senarra eta biok, ezagunen bat ospitalean dagoela jakinez gero, bisitan joaten gara. Batzuetan azken urteetan dugu joatea eta ez diogu familiari abisatzen. Baina, hala ere, beti hartzen gaituzte oso ondo. Normalean, presarik gabe joaten gara, ze bost minutuko bisita horiek ez dute ezertarako balio. Ez dakit jendea zergatik kezkatzen den hainbeste! Gu behintzat, ederki asko egoten gara kontu-kontari.

00:24 Sudurreko ebakuntza txiki bat egin zidatenean, beste pertsona batekin partekatu behar izan nuen gela ospitalean, eta lehenengo egunak minez eta mareatuta eman nituen. Baina ez zen hori okerreana izan. Ondokoak bisita asko jaso zituen eta ez nuen modurik izan atsedean hartzeko.

00:35 Niri ez zait batere gustatzen ospitalera joatea eta normalean etxera joaten gara edo joaten naiz eta beti eramaten dut oparitxoren bat eta ez dut nahi bisita oso luzea izatea eta ez mediku bezala, baizik eta pixka bat gehiago, baina...horrelaxe, zeren beti pentsatzen dut hor sobera zaudela.

Pazienteen gela-zenbakirik ez

Esataria.- Donostiako Ospitalean jada eskegi dituzte kartelak logeletara deirik ez dutela pasatuko abisatuz. Gaixoa ahalik eta gutxien molestatu nahi da, eta bide batez, bere intimitatea babestu.

Ospitaleko bozeramailea.- Claro, el paciente tiene derecho a decidir qué visitas quiere recibir y entonces, nosotros respetamos ese derecho que tiene el paciente y bueno, pues, ha ido evolucionando. Puede tener la visita indeseada de algún familiar o de algún vecino y no tiene por qué recibirla.

Esataria.- Hemendik aurrera, beraz, etxetik hau egitea alferrikakoa izango da eta baita mostradorean logelaren zenbakiaz galdetzea ere.

Elkarrizketatua 1.- Zuk suposatuta gela batean zaudela operatuta, eta min handiekin eta derrepente albokoa, bada, constantly (etengabe) dago, bada, telefonoz hitz egiten. Bada, azkenean suposatzen du molestia handi bat.

Elkarrizketatua 2.- Askotan, pazienteak lasai egon beharko lukeela deskantsatzen.

Elkarrizketatua 3.- Bada, gaixoaren datu pertsonalak edo intimitatea edo bada, babesteko ondo dago.

Esataria.- Betiere, gaixok baimendu beharko luke dei hori eta ingratuta dagoen pertsonak ezingo balu une horretan hitz egin, kasu horretan, familiaren baimena beharko litzateke.

Ospitaleko bozeramailea.- Siempre y cuando sea en presencia. Por teléfono no damos ningún tipo de información, pero en presencia si el paciente lo autoriza damos la información del número de habitación en la que está. Es el único tipo de información que daríamos.

Esataria.-Neurria Donostiako Ospitalean, Arabako Unibertsitate Ospitalean eta Basurtukoan ezarri da oraingoz, baina Osakidetzaren asmoa ospitale guztietara zabaltzea da.